

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****BERNEDOKO UDALA****Behin betiko onestea 2020ko ekitaldirako aurrekontu orokorra**

Ez da inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2020ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka. Beraz, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 15. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da. Hona hemen kapituluka laburtuta:

DIRU SARREREN EGOERA

DIRU SARREREN HASIERAKO AURREIKUSPENAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
1. Zuzeneko zergak	242.616,19
2. Zeharkako zergak	22.000,00
3. Tasak eta bestelako diru sarrerak	39.453,00
4. Transferentzia arruntak	223.707,94
5. Ondare sarrerak	34.682,00
Diru sarrera arruntak (1-5 batura)	562.459,13
6. Inbertsio errealak besterentzea eta hirigintza jardueretako beste diru sarrera batzuk	0,00
7. Kapital transferentziak	82.286,66
8. Finantza-aktiboak	0,00
9. Finantza-pasiboak	0,00
Diru sarrerren aurrekontua, guztira	644.745,79

GASTUEN EGOERA

GASTUEN HASIERAKO KREDITUAK, KAPITULUKA	ZENBATEKOA
1. Langile gastuak	161.024,12
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuak	287.315,47
3. Finantza gastuak	1.786,00
4. Transferentzia arruntak	89.860,00
Gastu arruntak (1-4 batura)	539.985,59
6. Inbertsio errealak	84.728,75
7. Kapital transferentziak	7.781,45
8. Finantza-aktiboak	0,00
9. Finantza-pasiboak	12.250,00
Gastuen aurrekontua, guztira	644.745,79

Aldi berean, eta bat etorritz apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren Legeak 16. artikuluan xedatutakoarekin, osorik argitaratzen da udal honek onetsitako langileen plantilla eta lanpostu zerrenda.

Aurrekontu plantilla

A. Karrerako funtzionarioak.

1. Estatu osorako gaikuntza duten funtzionarioak.

1. Idazkaritza-kontuhartzaitza; taldea: A1; destino-osagarriaren maila: 26; berariazko osagarria: 22.972,74 euro; hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun datarik gabe. Administrazio egoera: aktiboan.

B. Administrazio orokorreko funtzionarioak.

1. Azpieskala: laguntzaileak.

1. Administrari laguntzailea (askotariko eginkizunak); taldea: C2; destino-osagarriaren maila: 18; berariazko osagarria: 18.689,30 euro; hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun datarik gabe. Administrazio egoera: bitartekoa.

Halaber, bat etorritz Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 75.5 artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira dedikaziorik gabeko korporatiboentzat onartu diren ordainsariak:

1. 2019ko ekainaren 27ko erabaki bidez, alkateak dedikazio erregimen partzialean (% 42,85) jardungo du, eta haren soldata gordina 17.338,86 euro izango da.

2. Zinegotziek 80 euroko ordainsaria jasoko dute udalbatzetara, batzordeetara eta bileretara joateagatik (gehienez ere 2.000 euro).

Aurrekontu orokorra behin betiko onestearen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Nahi izanez gero, eta administrazioarekiko auzibideari ekin baino lehen, berraztertze errekurtsoa aurkez daskioke udalbatzari, iragarki hau argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta hilabeteko epean.

Bernedo, 2020ko otsailaren 10a

Alkatea

RUBÉN MARTÍNEZ CRESPO